



UZTARRIA

ek, eta, batez ere, beraien zuzendariak. Izan ere, norbait nahastuz gero, zuzendariak emandako aginduei jarraitu behar izaten diete.

Trajeak eta afaria

Danborradan ateratzeko trajeak ere elkartean bertan egoten dira. Urtero irteten direnek beren trajea dute, eta berriek, berriaz, sobratzen direnekin moldatu behar izaten dute. Normalean, trajeak ondo egokitzen dira, baina geratu izan da traje txikiegiak edo handiegiak egokitzea ere.

Trajeekin izan litezkeen arazoak konponduta, afaltzeko ordua iristen da. Izan ere, gaur egun tradizioa da, danborradan irten aurretik, ondo jatea. Hori, normalean, elkarteko ardura-

PARTE-HARTZEA

Herriko parte-hartzerik handienetakoa duen festa dira sansebastianak

dunek egiten dute. Beraiek prestatzen dute afaria egun berezi honetarako. Elkartek batzuetan, menu berezia egiten dute: angulak, txuleta eta antzeko jaki goxoak. Eta, noski, jatekoa horrelakoa denean, edatekoa ere ez da atzean gelditzen. Baina ez pentsa elkartek guztietan egiten dituztenik horrelako menuak! Badira xumeagoak egiten dituztenak ere. Ondo afaldu ostean, dan-



AZPEITIKO JAIK LIBURUA

Azpeitiko ikastetxe guztietako haurrek hartzen dute parte umeen danborradan.



UZTARRIA

Azpeitiko haurrek ilusio handia izaten dute danborradan ateratzeko.

borra jotzeko garaia iristen da. Trajeak jantzi, eta elkartetik Olazko Amaren plazara ateratzen dira, bertatik abiatzen baita helduen danborrada. Danborradan zehar, askotan, hotz handia pasatzen dute danborroleek. Horri aurre egiteko hain ospetsu bihurtu diren botila pattarra erabiltzen dute. Hotzari aurre egiteko, betiere. Danborrole askok danborrada bukatutakoan ere botila pattarra horiek edaten jarraitzen dute festa giroan, hotzari aurre egiteko.

Umeek ere izaten dute dan-

borra jotzeko parada Azpeitian. Horiek, San Sebastian egunean ibiltzen dira herriko kaleetan zehar. Danborradan irtetea tokatzen zaient arte, eskolan egiten duten danborrada bakarrik egiten dute txikienek, eta haur denei egiten die ilusio berezi bat San Sebastian eguneko danborradan ateratzeko.

Asko eta asko urduri izaten dira egun horretarako, baina ume denak gertu izaten dira danborra kaleetan barrena jotzeko. Askorentzat, lehen aldia izaten da.

Biharko egunez, herriko ikastetxe guztiak irteten dira, eta baita Itsasi dantza taldea ere. Baina baliteke laster beste talde berri bat izatea haurren danborradan ere, Lagun Onak Mendi Bazkunak eskaera egin baitu haurren danborradan ere parte hartzeko. Udalaren oniritzia jaso du, baina baldintza bat jarri dio: umeek, gutxienez, 12 urte edukitzea.

Aurten ez dira irtengo, baina baliteke, datorren urtean, beste talde bat gehiago ere izatea haurren danborradan, Azpeitian.

DANBORREN HOTSAK, ALAI DITZALA AZPEITIAN ELKARTUKO GAREN GUZTION BIHOTZAK

Azpeitiko



Udala